# HAURREN DANBORRADA

## Parte hartzeko araudia

### 1.- AURREKARIAK

Haurren Danborrada urtero egiten da urtarrilaren 20an, 12:00etatik aurrera, San Sebastian eguna ospatzeko. 1927an hasi zen, orduan sartu baitziren lehen aldiz mutilak festan, helduek egiten zuten moduan: hiriko kaleetan zehar desfilatzen, danborra joz.

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, hiriko hainbat ikastetxe, talde eta herri elkartetako konpainiak sartzeko prozesuari ekin zitzaion. Horren ondorioz, gaur egun ezagutzen dugun Haurren Danborradaren desfilea sortu zen

Ordutik hona aldaketa asko egin dira osaeran, janzkeran, irudietan, aurkezpenean... Garrantzitsuenen artean, neskak festan sartzea dago.

Gaur egun, Donostiako haur guztiek parte har dezakete Haurren Danborradan, araudi hau betetzeak dakarren muga bakarrarekin.

### 2.- XEDEA

Araudi honen xedea da San Sebastian eguna (urtarrilak 20) dela-eta Donostia Festak-ek antolatutako Haurren Danborradan parte hartzeko baldintzak ezartzea.

# TAMBORRADA INFANTIL

## Normativa de participación

### 1.- ANTECEDENTES

La Tamborrada Infantil que cada año se celebra el día 20 de enero a partir de las 12.00 para conmemorar el día de San Sebastián, se remonta en sus orígenes hasta 1927 cuando por primera vez se da entrada solo a niños en la fiesta en el modo que lo hacían las personas adultas: desfilando por las calles de la ciudad tocando el tambor.

A comienzos de la década de los años sesenta el Centro de Atracción y Turismo comenzó un proceso de integración en la misma de Compañías pertenecientes a distintos centros escolares, asociaciones y sociedades populares de la ciudad, que desembocaría en el desfile de la Tamborrada Infantil que conocemos en la actualidad.

Son muchos los cambios introducidos desde entonces en la composición, la vestimenta, las figuras, la presentación, … Entre los más importantes: la incorporación de las niñas a la fiesta.

En la actualidad la Tamborrada Infantil está abierta a la participación de todas las niñas y niños donostiarras con la única limitación que supone el cumplimiento de la presente normativa.

### 2.- OBJETO

Es objeto de la presente normativa establecer las condiciones de participación en la Tamborrada Infantil organizada por Donostia/San Sebastián Festak con motivo del día de San Sebastián (20 de enero).

IFK-CIF Q2000541I

donostiakultura

**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

IFK-CIF Q2000541I

**3.- NOIZ EGINGO DEN**

Haurren Danborrada urtarrilaren 20an ospatuko da, San Sebastian egunean.

**4.- PARTE HARTZAILEAK**

Donostian modu egonkorrean ezarritako ikastetxe, talde, katekesi, herri-elkarte eta abarretako haurrek parte hartu ahal izango dute Haurren Danborradan.

Parte hartzeko gutxieneko adina 6 urtekoa izango da, eta gehienekoa 14 urtekoa.

**5.- MUSIKA ERREPERTORIOA**

Haurren Danborradako ekitaldietan, musika errepertorioa hau interpretatuko da:

- **Donostiako Martxa (behin bakarrik, geldirik, Alderdi Ederren, urtarrilaren 20ko 12:00etan)**
- **Donostiako Antzinako Himnoa (behin bakarrik, Donostiako Martxaren ondoren, desfileari hasiera emateko)**

Ibilbidean zehar:

- **Diana**
- **Iriyarena**
- **Polka**
- **Retreta**
- **Tatiago**
- **Hau Dek Hau**
- **Gau Ibilera**
- **Atsoen Zalditeria**
- **Oilarren Zalditeria**
- **Ataque de Herriko Shemes**

**6.- KONPAINIEN UNIFORMEAK, OSAERA ETA PARTE HARTZAILE KOPURUA**

**3.- FECHA DE CELEBRACION**

La Tamborrada Infantil se celebrará el día 20 de enero, festividad de San Sebastián.

**4.- PARTICIPANTES**

Podrán participar en la Tamborrada Infantil las niñas y niños de centros escolares, agrupaciones varias, catequesis, asociaciones populares, etc., ubicadas con carácter estable en Donostia/San Sebastián.

La edad mínima para la participación será de 6 años, la máxima de 14 años.

**5.- REPERTORIO MUSICAL**

El repertorio musical que se interpretará durante el desarrollo de los actos de la Tamborrada Infantil será el siguiente:

- **Marcha de San Sebastián (una sola vez, en parado, en Alderdi Eder, a las 12.00 h. del día 20 de enero)**
- **Donostiako Antzinako Himnoa (una sola vez, tras la Marcha de San Sebastián, dando comienzo al desfile)**

Durante el Recorrido:

- **Diana**
- **Iriyarena**
- **Polka**
- **Retreta**
- **Tatiago**
- **Hau Dek Hau**
- **Gau Ibilera**
- **Caballería de Viejas**
- **Caballería de Gallos**
- **Ataque de Herriko Shemes**

**6.- UNIFORMES, COMPOSICION Y NÚMERO DE PARTICIPANTES DE LAS COMPAÑIAS**

donostiakultura

**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

IFK-CIF Q2000541I

## 1.- UNIFORMEAK

Haurren Danborradako uniforme guztiak inspiratuta egongo dira danborradak jatorri duen garaiko gizartean eta gertaera militarretan (XIX. mendea, Gerra Napoleonikoak).

Onartuko dira, halaber, geroagoko garai batekoak izan arren, kontzeptuaren antzekotasunari eusten diotenak.

Haurren Danborradako konpainia guztiek bi instrumentu talde, gutxienez, izango dituzte: danborra eta barrila. Suila ere izan dezakete.

Konpainiak honela banatuko dira:

**Lehen taldea:** Danborrariak (soldadu-uniformea eraman behar dute nahitaez).

**Bigarren taldea:** Barril-joleak (horien uniformea parte hartzen duen ikastetxeak hautatu beharko du soldadu, sukaldari eta urketariarenaren artean). Bigarren talde honek adierazitako uniformeetako bat baino gehiago eduki ahal izango du, eta parte-hartzaileak gutxienez 12 izango dira (2 ilara). Parte hartzaileen kopurua nahikoa bada (gutxienez 5 ilara, 30 parte hartzaile), taldeka banatu ahal izango dira (adibidez: sukaldarien taldea eta urketarien taldea, dagokien zuzendariarekin). Urketariek suila erabili ahal izango dute instrumentu gisa, barrilaren ordez.

Uniformeen ikusgarritasunari arreta berezia jarriko zaio. Parte hartzen duten haur guztiek eskularru zuriak eraman behar dituzte nahitaez. Debekatuta dago kirol-oinetakoak erabiltzea. Uniformearen zapatek ilunak izan beharko dute.

## 2.- OSAERA

Haurren Danborradan parte hartzen duten konpainien osaerak, orientabide gisa, eskema hau beteko du:

## 1.- UNIFORMES

Todos los uniformes de la Tamborrada Infantil estarán inspirados en la sociedad y en los acontecimientos militares de la época que marca el origen de la tamborrada (S.XIX etapa Guerras Napoleónicas).

También se admitirán aquellos que, aun siendo de una época posterior, mantengan similitud de concepto.

Todas las Compañías de la Tamborrada Infantil contarán, como mínimo, con dos grupos de instrumentos: tambor y barril. Podrán contar también con herrada.

Las Compañías se dividirán como sigue:

**Primer grupo:** tambores cuyo uniforme obligatorio será el de soldado

**Segundo grupo:** barriles cuyo uniforme será elegido por el centro participante entre soldado, cocinera/o y aguadora/aguador. Este segundo grupo podrá contar con varios de los uniformes indicados, siempre en un mínimo de 12 participantes (2 filas), Si el número de participantes fuera suficiente (al menos 5 filas, 30 participantes) podrán separarse por grupos (ej. grupo de cocineras/os y grupo de aguadoras/aguadores con su correspondiente directora/director). Las/os aguadoras/aguadores podrán utilizar la herrada como instrumento en lugar del barril.

Se prestará especial atención a la vistosidad de los uniformes. Todas las niños y niños participantes llevarán obligatoriamente guantes blancos. Se prohíbe el calzado deportivo; los zapatos del uniforme deberán ser oscuros.

## 2.- COMPOSICIÓN

La composición de las distintas Compañías que participen en la Tamborrada Infantil responderá orientativamente al siguiente esquema:


**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

**Gutxienekoak**

- 1 gastadoreen zuzendari (gastadoreen kaboa)
- 6 haur gastadore postuan
- 1 haur banderadun postuan
- 6 eta 18 haur bitartean kantinari postuan, ilarako 6ko formazioan
- 1 danborrarien zuzendari (Danbor Nagusia)
- 1 haur danborrarien kaboaren postuan, edo bat ere ez
- 24 haur, gutxienez, soldadu danborrariaren postuan, ilarako 6ko formazioan
- 1 barril-joleen zuzendari (barril nagusia), edo bat ere ez*
- 1 haur barril-joleen kabo postuan*
- 36 haur, gutxienez, soldadu barril-jolearen postuan, ilarako 6ko formazioan*
- 1 urketarien zuzendari (urketari nagusia), edo bat ere ez*
- 12 haur, gutxienez, urketari postuan, ilarako 6ko formazioan, edo bat ere ez*
- 1 sukaldarien zuzendari (sukaldari nagusia), edo bat ere ez*
- 12 haur, gutxienez, sukaldari postuan, ilarako 6ko formazioan, edo bat ere ez*

Adierazitako lanpostuetako edozein neskek nahiz mutilek bete dezakete.

Konpainien osaeran sartu nahi den beste edozein elementu gehigarri Donostia Festak-i jakinarazi beharko zaio, onar dezan, eta ezinbestekoa izango da hura danborradan sartzeak ez dezala nabarmen aldatu Haur Danborradaren irudi kolektiboa.

**Mínimos**

1 directora/director de gastadoras/es (cabo de gastadoras/es)
6 niñas/niños en el puesto de gastadora/gastador
1 niña/niño en el puesto de abanderada/o
Entre 6 y 18 niñas/niños en el puesto de cantinera/o, en formación de 6 por fila
1 directora/director de tambores (Tambor Mayor)
1 niña/niño en el puesto de cabo de tambores o ninguna/o
24 niñas/niños como mínimo en puesto de tambores-soldado, en formación de 6 por fila
1 directora/director de barriles (Barril Mayor) o ninguna/o*
1 niña/niño en el puesto de cabo de barriles*
36 niñas/niños como mínimo en puesto de barriles-soldado, en formación de 6 por fila*
1 directora/director de aguadoras/es (Aguadora/aguador Mayor) o ninguna/o*
12 niñas/niños como mínimo en puesto de aguadoras/res, en formación de 6 por fila o ninguna/o*
1 directora/director de cocineras/ros (Cocinera/o Mayor) o ninguna/o*
12 niñas/niños como mínimo en puesto de cocineras/ros, en formación de 6 por fila o ninguna/o*

Cualquiera de los puestos indicados puede ser indistintamente ocupado por niñas y niños.

Cualquier otro elemento añadido que quiera introducirse en la composición de las compañías deberá ser comunicado a Donostia/San Sebastián Festak para su aprobación, siendo imprescindible que su integración en la tamborrada no altere de forma sustancial la imagen colectiva de la Tamborrada Infantil.

## 3.- PARTE HARTZAILE KOPURUA

Donostia Festak-en ustez, konpainia bat osatzeko kopururik egokiena 75 eta 125 haur artekoa da.

## 3.- NUMERO DE PARTICIPANTES

Desde Donostia/San Sebastián Festak se considera que el número más adecuado para la composición de una compañía es entre 75 y 125 niñas/os.

IFK-CIF Q2000541I

Salbuespen gisa onartuko dira:

.- 65 eta 75 kide arteko konpainiak, baldin eta planteatzen duten osaera orekatua bada eta koherentziaz erantzuten badiote goian ezarritako osaerari.

.- 125 parte hartzailetik gorako konpainiak, Alderdi Ederren dagoen espazioa nahikoa bada.

Bi alderdi horiek Donostia Festak-i jakinarazi beharko zaizkio, behar besteko aurrerapenarekin, aztertu eta onartu ahal izateko.

Se admitirán con carácter extraordinario:

.-Compañías entre 65 y 75 componentes siempre que la composición que planteen sea equilibrada y responda de forma coherente a la composición arriba establecida.

.-Compañías con más de 125 participantes si el espacio existente en Alderdi Eder fuese suficiente para ello.

Ambos extremos deberán ponerse en conocimiento de Donostia/San Sebastián Festak con antelación suficiente para su estudio y posible aprobación.

## FIGURA ORDEZKAGARRIAK

Danborrari eta barril-joleen konpainiez gainera, Haurren Danborradan gure hiriko gizarte zibileko eta jaietako hainbat figurak izango dira.

Danborradan figura horiek antzezten parte hartuko duten haurrak baldintza hauek beteko dituen ikastetxe batekoak izango dira: aurretik paper hori antzeztu ez izatea eta Haurren Danborrada prestatzeko lehen bileran egingo den zozketan aukeratua izatea.

Haurren Danborradako figurak honako hauek izango dira:

**Nahitaezko figurak** (udaletxeko balkoi nagusitik danborradan parte hartuko duten bakarrak izango dira). Figura guztiak neskek nahiz mutilek egin ahal izango dituzte. Horiek antzezten dituzten haurrek 12 urte ingurukoak izan beharko dute.

- **Danbor nagusia:** Haurren Danborradan parte hartzen duten konpainiak sartzeko hurrenkera korrelatiboaren arabera aukeratua. Udaletxeko balkoi nagusitik zuzenduko ditu San Sebastian martxa eta Antzinako martxa, Alderdi Ederren dauden Haurren Danborradako

## FIGURAS REPRESENTATIVAS

Además de las Cías. de tambores y barriles, la tamborrada Infantil contará con diferentes figuras representativas de la sociedad civil y las fiestas de nuestra ciudad.

Las niñas y niños que participarán en la tamborrada representando estas figuras corresponderán al centro que, no habiendo ostentado anteriormente este papel, resulte elegido en sorteo que se realizará en la primera reunión preparatoria de la Tamborrada Infantil.

Las figuras de la Tamborrada Infantil serán las siguientes:

**Figuras obligatorias** (serán las únicas que participen en la Tamborrada desde el Balcón Central del Ayuntamiento). Todas las figuras podrán ser indistintamente ocupadas por niñas o niños. Las niñas y niños que las representen deberán tener alrededor de 12 años.

- **Tambor Mayor:** elegida/o por orden correlativo de incorporación de las Cías. participantes en la Tamborrada Infantil. Dirigirá desde el Balcón Central del Ayuntamiento la Marcha de San Sebastián y el Donostiako Antzinako Himnoa, que será interpretada por todas las Cías. de la

IFK-CIF Q2000541I

donostiakultura

**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

konpainia guztiek interpretatuko dutena.

- **Alkatea:** Hitzaldi bat zuzenduko die (gehienez 3 minutu) Alderdi Ederren zabaldutako Haurren Danborradako konpainiei.

- **Notarioa**.

- **Jenerala:** Hitzaldi bat zuzenduko die (gehienez 3 minutu) Alderdi Ederren zabaldutako Haurren Danborradako konpainiei. Hitzaldia amaitu eta danbor nagusiak udaletxeko balkoi nagusitik zuzendutako martxak interpretatu ondoren, jeneralak zaldiz egingo du desfilea bere laguntzailearekin (balego) eta Donostiako Hipika Errege Elkartearen konpainiarekin batera.

- **Jeneralaren Laguntzailea:** Figura hau antzezten duen haurra 10 eta 12 urte artekoa izango da. Zaldi gainean egingo du desfilea, jeneralarekin batera.

Behar besteko aurrerapenarekin Donostia Festak-i eskatuta, jeneralak eta laguntzaileak bigarren aldiz egin ahal izango dute ibilbidea dagokien ikastetxeko, katekesiko… danborrada konpainiaren ondoan. Euren konpainiaren desfilean buru direla egingo dute ibilbidea.

**Hautazko figurak** (ikastetxeak edo elkarteak nahierara aukeratuko ditu, eta horrek desfilean parte hartuko duten ala ez erabaki ahal izango du).

**Karrozako figurak:** Gutxienez 8 pertsona eta gehienez 11 izango dira, jarraian adierazten den moduan elkartuta betiere. Figura horiek antzezten dituzten haurrak 10 eta 12 urte bitartekoak izango dira.

- Donostiako herritarrak
- Batelaria eta arrantzalea
- Inudea eta artzaina
- Irulea eta dendaria
- Urketaria eta mandazaina
- Easo Ederra eta 2 dama

Tamborrada Infantil desplegadas en Alderdi Eder.

- **Alcaldesa o Alcalde:** dirigirá un discurso (no más de 3 minutos) a las Cías. de la Tamborrada Infantil desplegadas en Alderdi Eder.

- **Notaria o Notario**

- **La/el General:** dirigirá un discurso (no más de 3 minutos) a las Cías. de la Tamborrada Infantil desplegadas en Alderdi Eder. Finalizado su discurso y tras interpretarse las marchas dirigidas por la/el Tambor Mayor desde el Balcón Central del Ayuntamiento, la/el General realizará el desfile a caballo junto a su Ayudante (si lo hubiera) y a Cía. de la Real Sociedad Hípica.

- **Ayudante de General:** La niña/o que represente esta figura tendrá entre 10 y 12 años. Realizará el desfile a caballo junto a la/el general.

General y Ayudante podrán, previa petición con la suficiente antelación a Donostia/San Sebastián Festak, realizar por segunda vez el recorrido junto a la Compañía de Tamborrada del centro escolar, asociación catequesis… al que pertenezcan. Realizarán el recorrido abriendo el desfile de su Cía.

**Figuras optativas** (serán elegidos a su conveniencia por el centro escolar o asociación, pudiendo o no participar en el desfile a decisión de este).

**Figuras de carroza:** mínimo 8 personas/máximo 11 personas, siempre emparejadas como se indica a continuación. Las niñas y niños que representen estas figuras tendrán entre 10 y 12 años.

- Ciudadana y Ciudadano donostiarra
- Batelera y Pescador
- Nodriza y Pastor
- Hilandera y Tendera/o
- Aguadora y Arriera/o
- Bella Easo y 2 damas



donostiakultura

**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

**Kalesako figurak**: 6 pertsona. Figura hori antzezten duten haurrak 6-7 urtekoak izango dira. Planteamendua parekidea izatea gomendatzen da (3 neska + 3 mutil).

- Zaldizainak

Atal honetan jasotako figura guztiak neskek nahiz mutilek egin ahal izango dituzte.

**DESFILEA: ORDUTEGIA, IRTETEKO ORDENA, ERRESPETATU BEHARREKO ARAUAK, EZ AGERTZEA**

**1.- ORDUTEGIA**

Haurren Danborradaren desfilea urtarrilaren 20an hasiko da, eguerdiko 12etan, eta, obrengatik edo ezinbesteko beste arrazoi batzuengatik Donostia Festak-ek bestelakorik jakinarazi ezean, hiriaren erdialdeko kaleetan zehar egingo da.

Donostia Festak-ek parte hartzaile bakoitzari jakinaraziko dio desfilea puntualki hasteko konpainiek Alderdi Ederrera zein ordutan iritsi beharko duten. Hala ere, gutxi gorabeherako ordutegi eskema honako hau izango da:

**10:45-11:30** Parte hartzen duten konpainiak, Donostia Festak-eko langileen laguntzarekin, dagokien tokian jarriko dira Alderdi Ederreko lorategietan eta udaletxeko terrazan.

Banderadunak terraza nagusira joango dira Haurren Danborradako pertsonaiei ohorezko korridorea egiteko.

**11:48** Parte hartzen duten konpainia guztien izenak udaletxeko balkoi nagusitik irakurriko dira.

**Figuras en calesa:** 6 personas. Las niñas y niños que representen este personaje tendrán 6-7 años. Se recomienda que el planteamiento sea paritario (3 niñas + 3 niños)

- Palafreneras / Palafreneros

Todas las figuras recogidas en este apartado podrán ser ocupadas indistintamente por niñas o niños.

**EL DESFILE: HORARIO, ORDEN DE SALIDA, NORMAS A RESPETAR, INCOMPARECENCIA**

**1.- HORARIO**

El desfile de la Tamborrada Infantil dará comienzo, el día 20 de enero, a las 12 del mediodía y se desarrollará, salvo comunicación en contrario por parte de Donostia/San Sebastián Festak por obras u otras causas de fuerza mayor, por las calles del centro de la ciudad.

El horario en que las Compañías deberán llegar a Alderdi Eder para que el desfile comience puntualmente, será comunicado a cada participante por Donostia/San Sebastián Festak. No obstante, el esquema horario aproximado será el siguiente:

**10.45-11.30 h.** Las Compañías participantes, apoyadas por personal de Donostia/San Sebastián Festak, se situarán en el lugar que les corresponda, en los jardines de Alderdi Eder y terraza del Ayuntamiento.

Las y los abanderadas/os acudirán a la terraza principal para formar pasillo de honor a las diferentes figuras de la Tamborrada Infantil.

**11.48 h.** Se realizará la lectura de los nombres de todas la Cías. participantes desde el balcón central del Ayuntamiento.

IFK-CIF Q2000541I

donostiakultura

**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

**11:54** Alkateak eta jeneralak udaletxeko balkoi nagusitik irakurriko dituzte beren hitzaldiak.

**11.54 h.** La alcaldesa/el alcalde y la/el general, leerán sus discursos desde el balcón central del Ayuntamiento.

**12:00** Eguerdiko 12:00etan, berariaz jarritako bozgorailuen bidez, Haurren Danborradako danbor nagusiak udaletxeko balkoi nagusitik zuzenduko du "**Donostiako Martxa**", Alderdi Ederren zabaldutako konpainia guztiek interpretatuko dutena. Haurren Danborradaren hasiera zorrotz errespetatuko da eta puntu-puntuan izango da.

**12.00 h.** A las 12.00 h del mediodía, a través de los altavoces instalados al efecto, la/el Tambor Mayor de la Tamborrada Infantil dirigirá desde el balcón central del Ayuntamiento la "**Marcha de San Sebastián**" que será interpretada por todas las Cías. desplegadas en Alderdi Eder. Se respetará absolutamente y con toda puntualidad el inicio de la Tamborrada Infantil.

**12:03** Lehen konpainiak **Donostiako Antzinako Himnoa**ren soinuekin hasiko du desfilea.

**12.03 h.** La primera compañía comenzará el desfile a los sones de la **Donostiako Antzinako Himnoa**.

## 2.- IRTETEKO HURRENKERA

Parte hartzen duten konpainiek desfilatzeko hurrenkera Haurren Danborradan sartu diren antzinatasunaren araberakoa izango da.

## 2.- ORDEN DE SALIDA

El orden de desfile de las Compañías participantes será por antigüedad de incorporación a la Tamborrada infantil.

## 3.- DESFILEAN ERRESPETATU BEHARREKO ARAUAK

.- Konpainia bakoitzak gehienez 10 metroko distantzia izango du aurrekoarekiko. Konpainia bereko ilaren artean ezin izango da 1,5 m baino gehiago egon. Konpainia bateko taldeen artean, gehieneko distantzia 2,5 m-koa izango da.
.- Konpainiek galtzadaren erdialdean taldekatuta desfilatuko dute, gastadoreak, kantinerak, fusilariak, aizkoragileak, etab…. izan ezik, azken horien eraketa irekia izango baita.
.- Konpainia bakoitzak 6 arduradun izango ditu gehienez. Horiek kaleko jantziekin edo, hala badagokio, sukaldariz jantzita joango dira, desfilearen bilakaera zainduko dute eta formaziotik kanpo geratuko dira, lehen publiko ilararen aldamenean. Guztiek ondo ikusteko moduan eraman beharko dute Donostia Festak-ek emandako identifikatzailea.

## 3.- NORMAS A RESPETAR DURANTE EL DESARROLLO DEL DESFILE

.- Cada Compañía mantendrá una distancia máxima de 10 metros con la que la preceda. Entre filas de la misma Compañía no podrá haber más de 1,5 mts. Entre los diferentes grupos de una Compañía la distancia máxima será de 2,5 mts.
.- Las compañía desfilarán agrupadas por el centro de la calzada con excepción de las gastadoras o gastadores, cantineras, fusileras/os, hacheras/os, etc.… cuya formación será abierta.
.- Cada Compañía contará con un máximo de 6 personas responsables que, vestidos de calle o, en su caso, de cocineras/os, vigilarán el transcurso del desfile, permaneciendo fuera de la formación, pegados a la primera fila de público. Todas ellas deberán llevar bien visible el identificador entregado por Donostia/San Sebastián Festak.

IFK-CIF Q2000541I

IFK-CIF Q2000541I

**4.- EZ AGERTZEA**

Haurren Danborradan arrazoi justifikaturik gabe parte ez parte hartzeak berekin ekarriko du antzinatasuna galtzea ondorio guztietarako, baita dirulaguntza ere.

**5.- GERTAKARIAK**

**5.1. Komunikazioa, edonolako gertakaririk balego**

Jarduera bertan behera uztea edo araudi honetan ezarritakoarekiko bestelako aldaketaren bat egitea ekarriko duen gertakaririk izango balitz, Donostia Festak-ek horren berri emango die parte hartzen duten konpainiei, behar besteko aurrerapenaz.

Gertakaria meteorologikoa bada, Danborradaren egunean bertan 10:00etatik 10:30era bitartean jakinaraziko zaie parte hartzaileei jarduera egingo den ala ez.

**5.2. Bertan behera uzten bada**

Edonolako gertakariren ondorioz Haurren Danborrada bertan behera utzi beharko balitz San Sebastian egunean, urtarrilaren 20aren hurrengo igandera atzeratuko da (salbu eta Danborrada bertan behera utzi den urteko 20a larunbata bada; kasu horretan, hurrengo asteko igandean egiteko aukera aztertuko bailitzateke).

Berriro bertan behera utzi beharko balitz, behin betiko utziko litzateke hurrengo urtera arte.

**ANTOLAMENDUAREKIN LOTUTAKO BESTE ZENBAIT**

1.- <u>Estandarteak eta banderak</u>: Donostiako bandera, ikurrina eta eskola, elkarte edo

**4.- INCOMPARECENCIA**

La no participación en la Tamborrada Infantil, sin causa justificada, significará la pérdida de antigüedad a todos los efectos, así como de la subvención.

**5.- INCIDENCIAS**

**5.1. Comunicación en caso de incidencias de diversa índole**

Si el desarrollo de la actividad pudiera verse afectado por algún tipo de incidencia que supusiese su suspensión o alguna otra alteración en relación con lo establecido en esta normativa, Donostia/San Sebastián Festak lo pondrá en conocimiento de las Compañías participantes con antelación suficiente.

Si la incidencia fuera de tipo meteorológico la comunicación sobre la celebración o no de la actividad será transmitida a todas las participantes el mismo día de la Tamborrada entre las 10.00 y las 10.30 horas.

**5.2. En caso de suspensión**

Si la tamborrada infantil tuviese que suspenderse el día de San Sebastián por cualquier tipo de incidencia, se pospondrá al domingo inmediatamente posterior al 20 de enero (salvo que el día 20 del año en que se produjera la suspensión cayera en sábado, en cuyo caso, se tomaría en consideración la posibilidad de que se celebrase el domingo de la semana siguiente).

Si de nuevo tuviera que ser suspendida, lo sería de forma definitiva hasta el año siguiente.

**VARIOS ORGANIZATIVOS**

1.- <u>Estandartes y Banderas</u>. Podrán exhibirse la Bandera de San Sebastián, la Ikurriña y el



**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

talde sustatzailearen estandartea erakutsi ahal izango dira.

Donostiako bandera eramanez gero, Udalak 1998ko azaroaren 23ko udalbatzan onartutako kolore eta neurri ofizialak izan beharko ditu.

"Donostiako bandera zuria da, 2,5 x 1,6 m-koa, eta goian laukizuzen Frantzia urdina du, zorroaren ondoan. Laukizuzen horren alboak hartu behar ditu zorroaren bi bostenak eta banderaren luzeraren bi bostenak".

2.- Publizitatea: Konpainiek ezingo dute beren uniformeetan edo identifikazio-banderetan inolako publizitaterik eraman. Era berean, ezin izango dute ikastetxe, elkarte edo talde sustatzailearena ez den inolako markaren, enpresaren… erreferentziarik eraman.

3.- Irteerak Donostiako udal mugartetik kanpo: San Sebastian eguneko festan parte hartzen duten haurren danborradek, beren jaiak edo beste efemeride edo ospakizun batzuk direla-eta (adibidez, ikastetxe edo elkarteen arteko senidetzea, hainbat lekutatik datozen jardueren erakustaldia) beste herri eta hiri batzuetan parte hartzera gonbidatzen badituzte, Donostia Festak-i bertara joango direla jakinarazi beharko diote. Jakinarazpen hori baliagarria izango da gure jaiak munduko beste leku batzuetan duen presentziaren historikoa eguneratzeko.

estandarte del centro escolar, la sociedad o asociación promotora.

En caso de llevar la Bandera de San Sebastián, deberá tener los colores y las medidas oficiales aprobadas por el Ayto. de San Sebastián en Pleno del día 23 de noviembre de 1998, a saber:
“La bandera de San Sebastián es blanca de tamaño 2,5 x 1,6 mts., con rectángulo superior azul Francia junto a la vaina. Este rectángulo debe ocupar de lado los dos quintos de la vaina y los dos quintos del largo de la bandera. “

2.- Publicidad: Las compañías no podrán llevar ni en sus uniformes, ni en sus banderas identificativas, ningún tipo de publicidad. Tampoco podrán llevar ningún tipo de referencia a marcas, empresas… diferentes a las propias del centro escolar, sociedad o asociación promotora.

3.- Salidas fuera del término municipal de Donostia/San Sebastián: las Tamborradas Infantiles que participen en la Fiesta del Día de San Sebastián que sean invitadas a participar en otros pueblos y ciudades con motivo de sus fiestas u otras efemérides o celebraciones (ej. Hermanamiento entre centros escolares o asociaciones, muestra de actividades procedentes de diferentes lugares, …) deberán comunicar su asistencia a Donostia/San Sebastián Festak. La citada comunicación servirá para mantener al día el histórico de presencia de nuestra fiesta en otros lugares del mundo.

## ARAUDI HONEN APLIKAZIOA ETA INDARRALDIA

1.- Araudiaren aplikazioa: Urtarrilaren 20ko desfilea aipatzen ez duen guztian, araudi hau aplikatu ahal izango zaie San Sebastian eguna dela-eta hiriko hainbat auzotan desfileak egiten dituzten haurren danborradei.

2.- Indarraldia: Araudi hau iraungitze-datarik gabe egongo da indarrean Donostia Kulturako Zuzendaritzak/Gerentziak sinatzen duen unetik aurrera, eta aldatu

## APLICACION DE ESTA NORMATIVA Y VIGENCIA

1.- Aplicación de la normativa: La presente normativa podrá ser aplicada, en todo aquello que no haga referencia al desfile del día 20 de enero, a las tamborradas infantiles que con motivo del día de San Sebastián realizan desfiles en diferentes barrios de la ciudad.

2.- Vigencia: La presente normativa estará en vigor sin fecha de caducidad desde el momento de su firma por la Dirección-Gerencia de Donostia Kultura, procediéndose

IFK-CIF Q2000541I

edo berriz idatziko da Donostiako Jaiaren bilakaera naturala dela-eta hala eskatzen duten aldaketak izaten direnean. www.Danborrada.DonostiaKultura.eus web-orrian argitaratuko da.

a su cambio o nueva redacción cuando se produzcan cambios que así lo exijan debido a la evolución natural de la Fiesta de San Sebastián. Estará publicada en la página web www.Danborrada.DonostiaKultura.eus.

2021eko apirila

Abril de 2021

IFK-CIF Q2000541I



**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak